# Angeluen arteko kenketa

## Angeluen arteko kenketa egiten

**ERA GRAFIKOAN**




Ĉ angelua Â-ren eta B̂-ren arteko kendura-angelua da.

$$\hat{C} = \hat{A} - \hat{B}$$

**ZENBAKIZKO ERAN**

$$\begin{array}{rrr} 52^\circ & 15' & 22'' \\ -\ 22^\circ & 30' & 45'' \\ \hline \end{array}$$

22"-ri ezin dizkiogu 45" kendu. Horretarako, kenkizuneko minutu bat segundo bihurtuko dugu.

$$\begin{array}{rrr} 52^\circ & 14' & 82'' \\ -\ 22^\circ & 30' & 45'' \\ \hline & & 37'' \end{array}$$

14'-ri ezin dizkiogu 30' kendu. Horretarako, kenkizuneko gradu bat minutu bihurtuko dugu.

$$\begin{array}{rrr} 51^\circ & 74' & 82'' \\ -\ 22^\circ & 30' & 45'' \\ \hline 29^\circ & 44' & 37'' \end{array}$$

# Ariketak

### IKASITAKOA ERABILI

**1** Marraztu koadernoan D̂ angelua, M̂ eta N̂ angeluen kendura-angelua.




**2** Kalkulatu zenbakizko eran B̂ – Ĉ.




**Gogoratu**

1 gradu = 60 minutu

1° = 60'

1 minutu = 60 segundo

1' = 60''

**3** Kalkulatu zenbat den honako angelu honen zenbakizko balioa:

$\hat{M} = 35° \; 24' - 23° \; 32'$

**4** Marraztu koadernoan kendura-angeluak, eta adierazi zer neurri duten.




$\hat{A} - \hat{B}$ $\quad$ $\hat{B} - \hat{C}$ $\quad$ $\hat{A} - \hat{C}$

| | |
|---|---|
| **A - B** | |
| **B - C** | |
| **A - C** | |

**5** Egin kenketak:

$\hat{D} = 54° \; 23' \; 43'' - 28° \; 32' \; 20''$

$\hat{C} = 66° \; 45' \; 10'' - 35° \; 40' \; 28''$

| | |
|---|---|
| **D** | |
| **C** | |

## AURRERA

**6** Egin beharrezko unitate-aldaketak, eta kalkulatu.

$\hat{A} = 24^\circ\ 10'' - 15^\circ\ 10'\ 25''$

$\hat{C} = 45^\circ - 28^\circ\ 15'\ 45''$

$\hat{B} = 36^\circ\ 14' - 25^\circ\ 20'\ 36''$

$\hat{D} = 56^\circ\ 22'\ 45'' - 47^\circ$

| | |
|---|---|
| A | |
| B | |
| C | |
| D | |

**Kontuan hartu**

Kenketa egitean unitate-ordenaren bat falta bada, zeroak ipintzen dira ordez.

$35^\circ\ 22'' - 28^\circ\ 16'\ 35''$

$$\begin{array}{r} 35^\circ\ 00'\ 22'' \\ -\ 28^\circ\ 16'\ 35'' \\ \hline \end{array}$$

Gero, behar diren unitate-aldaketak egiten dira.

$$\begin{array}{r} 34^\circ\ 60'\ 22'' \\ -\ 28^\circ\ 16'\ 35'' \\ \hline \end{array}$$

↓

$$\begin{array}{r} 34^\circ\ 59'\ 82'' \\ -\ 28^\circ\ 16'\ 35'' \\ \hline 06^\circ\ 43'\ 47'' \end{array}$$

**7** Zer neurri du $\hat{F}$ angeluak?




$\hat{D} = 136^\circ$

$\hat{E} = 57^\circ\ 25''$

## PROBLEMAK EGIN

**8** Zer angeluko biraketa egin behar du suhiltzaileak bigarren sura heltzeko?




$\hat{B} = 86^\circ\ 30'$

$\hat{C} = 28^\circ\ 50''$